

OSASUNA. Tabako konpainiek uste dute badaezpadako neurri hori gehiegizkoa dela

Tabakoaren salmenta etetea edo ez erabaki behar du Bilboko epaitegiak

Bizkaiko Laringektomizatuen Elkartek eskatu du neurria, produktua kaltegarria delako



JOSU ETXEBARRIOSTE

Bizkaiko Laringektomizatuen Elkarteak kideak, epaitegian salaketa jarri zuten egunean.

Erredakzioa | **BILBO**

Datorren astean erabakiko du Bilboko epaitegiak Espainian tabakoaren salmenta debekatu-ko duen ala ez. Bizkaiko Laringektomizatuen Elkartek eskatu du badaezpadako neurria, produktu horrek eragiten dituen kalteak direla-eta.

Bilboko bederatzigarren Salako epaileak atzo entzun zituen aldean argudioak: batetik, laringean ebakuntza jasan dutenena eta, bestetik, beren burua defenditu zuten tabako konpainie-na.

Monserrat Vega akusatzaileen abokatuak azaldu zuenez, tabakoaren salmenta eten nahi dute tabako konpainien aurka-ko epaiketaren sententzia jakin arte. Laringektomizatuek urtero 500 milioi pezetako kalte-ordaina (20 milioi libera) eskatu dute, iritzi baitiote tabakoa erretzea izan dela beren gaixotasunaren eragile zuzena. «Gure helburua ez da aberas-tea, baizik eta tabakoa gizarte-an eragiten ari den kalteari bu-ruz gogoeta egitea», azaldu zuen Francisco Ruiz de Vergara elkarte-ko bozeramaileak. Jaso

dezaketen dirua Laringektomi-zatuen Elkartek finantzatzeko erabiliko dutela jakinarazi dute bertako kideek.

Sei konpainien aurkako sala-keta jarri du Bizkaiko Laringek-tomizatuen Elkartek, hala nola, Altadis, Logista, JTI, Ta-bacos Canarios, British Ameri-can Tobacco eta Phillips Mor-ris. Horien abokatuek atzo

ziurtatu zutenez, badaezpadako neurriak «gehiiegizkoak» dira. Izan ere, tabakoaren industrian lanean ari diren milaka lagunek ez ezik, Estatuari berari ere zu-zenean kalte egingo litzaioke, dirutza biltzen baitu tabakoaren gaineko zergaren bitartez. Efe-agentziaren arabera, Espainian 140.000 lagunek egiten dute lan tabakoa landatzen, ekoizten,

banatzen eta saltzen. Horri gehitu behar zaio ostalaritzan ere salgai dagoela.

Iragan maiatzaren 31n aur-keztu zuen salaketa Bizkaiko Laringektomizatuen Elkartek, Tabakorik Gabeko Eguna ospa-tzen ari zirela. Espainiako elkar-te batzuek ere jo zuten epaile-engana, baina Leongo epaitegi batek soilik hartu du aintzat.

FRANTZIAKO KASUA

Erretzaile baten heriotzaz zuritu dute Seita, tabako konpainia frantziarra

Orleanseko Dei Auzitegiak errugabetzat jo du Seita Frantziako tabako konpainia, erretzaile baten heriotza eragiteaz. Astelehenean zabal-dutako epaian, auzitegi horrek atzera bota zuen Seitaren aurkako epaia, 1999ko abenduan Montargisko epaitegi batek emandakoa.

Richard Gurlain hildakoaren senideek «osa-sun publikoaren porrot» gisa definitu zuten epaia eta Frantziako Kasazio Auzitegira jotze-ko asmoa azaldu du.

1999an hil zen Gurlain, 50 urte zituela. 14

urterekin hasi zen erretzen, 1963an, egunero bi Gauloises pakete. 1988an aurkitu zioten birike-tako lehen minbizia, ondoren mingainekoa eta bigarren aldiz biriketan gero. Hil arte ez zion erretzeari utzi.

Gourlainen familiak dioenez, biktima erre-tzen hasi zenean, ez zekien tabakoa osasuna-rentzat kaltegarria zela. 1976. urtean Veil legea indarrean jarri zenetik, Frantzian saltzen den tabako kutxa orok dio kaltegarria dela, baina aurretik ez zen hori gertatzen.

Epaileak argudiatu duenez, Seitari ez zego-kion tabakoaren arriskuez jakinaraztea, Finan-tza Ministerioaren menpeko erakunde publi-koa izanik, Ministerioaren beraren erantzuki-zuna baitzen. Seita pribatizatuta dago orain eta Tabacalera espainiarrarekin elkartu ondoren, Altadis taldea osatu dute.

NAFARROA

Kartzelarentzat leku egokia bilatzen ari dela adierazi du Gobernuak

Kristina Berasain | **IRUÑEA**

Nafarroako alderdi sozia-listak egin galderaren au-rrean Rafael Gurreak, Na-farroako Gobernuako le-hendakariorde eta barne kontseilariak, «kartzela berria egiteko leku egokia bilatzen jarraitzen dugu», erantzun zuen Legebiltza-rrean uda ostean egin du-ten aurreneko osoko bil-kuran. Zehazki gai horri Gobernuak ez diola «uko egin» adierazi du Gurre-ak; izan ere, hori zen hain zuzen PSNko Jorge Morik Gobernuari egin itaunke-ta.

Ildo horretan, Iruñetik 30 kilometro bitarteko eremuan lekua bilatzen jarraitzen du Gobernuak eta Rafael Gurrearen esa-netan, Espainiako Barne Ministerioari laguntzeko asmoa baldin badute ere, kartzela bera eraikitzea ez dela Nafarroako Gober-nuaren eskuduntza gogo-rarazi zuen.

Bien bitartean, Batasu-na taldeak aurkeztu hiru mozioak ez ziren aurrera atera. Batasunak kartzela Iruñean bertan egitea, ba-kartzte ziegak kentzea eta nafar presoek beharreta-ra egokitzea eskatu zuen. Aurreneko mozioak Ba-tzarrerren babesa baino ez zuen jaso, eta hurrengo biek EA-EAJ, NEB eta Ba-tzarrerren laguntza izan zuten. Beraz, ekimenek ez zuten aurrera egin.

Osasunbidea

Bertzetik, Batasunak Na-farroako Gobernuak Osa-sunbidean lanpostuak ateratzeko aldatu dekre-tua gogor kritikatu zuen. Aurreneko Ortiz legebiltzar-kideak dekretu horrek Euskararen Legea urra-tzea eta osasun publikoan euskararen presentzia murriztea dakarrela sala-tu zuen.

Osasun sailburu Santia-go Cerverak, eremu eus-kaldunean eskubide hori errespetatzen dela aitortu zuen, eta «bereizkeria ez egiteko» aldatu dutela de-kretua argudiatu zuen. NEB, EA-EAJ eta Batza-rre alderdiek ere zorrotz salatu dute «UPNk euska-raren kontra duen jarre-ra».